



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 28a

122. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nazioarteko VI. Arkitektura Biltzarraren aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, NASUVINSak Ihabenen, Bargotan eta Undion alokairuan dauzkan etxebizitzaren gaineko datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketak gehien ukitutako sektoreekiko lankidetzeta-sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako enpresa-sektoreekiko lankidetzeta-sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako laguntza tekniko kontratatzekeo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketaren programazio berekiari eta deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan gizarte zerbitzuen mankomunitateekin eta udalekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketarako laguntza tekniko kontratatzekeo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren deialdiari eta toki entitateekiko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako udalekin eta mankomunitateekin egindako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako laguntza tekniko kontratatzekeo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Honako ponentzia hau sortzeko erabakia: bitartekaritza nahiz beste gatazka-ebazpenerako teknika eta bide batzuk aztertzekeo, helburu duena gatazka-ebazpenerako eredu bat garatu eta sustatzea nafar herritarren premien arabera izanen dena. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia (34. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kultura eta Kirol Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak ekainaren 19ko 29/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi zen Kultura eta Kirol Departamentuko hizkuntza planari buruz eginiko idatzizko galderari dagokionez (10-21/PES-0034), honako honen berri ematen du:

Egindako galderei erantzunez, hasteko, departamentuaren hizkuntza plana garatzearren egin behar izan diren ekintza eta lan batzuk zehaztuko ditugu.

Plan horren ezarpena egiteko, 4. puntuan zehazten diren jarraibideei heldu diegu. Antolamendu-egitura eta jarraipena.

Horretarako, departamentuak 2 teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren bi arduradun izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak izendatutako pertsonen eta Eus-

karabideak hautatutakoen artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago Plana inplementatzeko.

Horretaz gainera, azarorako departamentuartereko batzorde teknikoaren bilera bat programatuta da.

Departamentuko hizkuntza planaren ezarpena diharduten pertsonen prestakuntza jaso dute 2020ko azaroaren 5ean.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-tea)
- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)
- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Lehenengo galderaren erantzuna:

– Zertan da Kultura eta Kirol Departamentuko hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketak ildoetako bakoitza betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketak-ildoak, arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. Helburua: lehentasunezko unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Egina
POan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikoari igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Egina
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuekiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea POan hizkuntza-eskakizuna izan beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikoari igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu.

Ondoren, Departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehentasunezko unitateei dagokienez. Proposamen hori EAPGZri igorri zaio, aholkua eman eta lanpostuen egokitasuna egiaztatzea.

Jarraian, lanpostu-proposamenerako txosten teknikoak egin dira, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorri zaizkio, berrikusituz.

Datozen hilabeteetan aurreikusita dago helburu horren jarduketa-ildo guztiak aurrera eramatea.

2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentu-langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Garatzen ari da
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-lerro hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabidea aholku-zerrenda bat prestatzen ari da, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutarazteko protokolo bat egingen du.

**4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa
(digitala eta paper bidezkoa) euskaraz eta gaztelaniaz ematea**

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanzen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Egina, garatzen ari da
navarra.es atariaren aduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezen	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanzen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu, eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Hizkuntza planaren 2.4 puntuan, komunikazioen eta baliabideen diagnosiko bat egin zen, eta aurrerantzean osatuko da.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehentasuna eman zaie aurreproiektuei eta foru lege eta foru dekretuen proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkari-tzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehentasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak, hala eskatzen duten departamentuei, elebidunak izateko egokiak diren formatuetan eskaintzen dizkie webetarako eta aplikazioetarako euskarriak.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lankidetzan ari da navarra.es atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin, zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten navarra.es helbidean ostaturiko web orri propioen eta gaitzako web orrien diagnostikoa egiteko, eta ele biz eskainiak izateko beharrezkoak diren urratsak egiteko. Horrez gain, Departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostaturiko web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Esparru horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eragin handiagoa izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Lehenik eta behin, web orri propioak identifikatu dira. Jarraian, haien hizkuntza-egoeraren diagnostiko bat egin da. Aldi berean, identifikatu egin dira webetara eramaten diren informazio-fluxuak eta aipatu web orrietan egiten diren edizioen eta ekintzen arduradunak. Hori eginda dagoelarik, jardunerako protokolo bat taxutzen da departamentua, Euskarabidea eta, kasua bada, weben arduradunak koordinaturik, edukien jarraipena, zuzenketa, itzulpena eta edizioa egite aldera.

Edozein ekintza egiteko orduan, lehentasuna ematen zaie herritarrengan inpaktu handiena dutenei.

Kultura eta Kirol Departamentuaren kasuan, honakoak dira identifikaturiko web propioak: Kulturana Navarra.es, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 10 web orri desberdin eta Deporte Navarra.es web orri ofiziala.

Horien hizkuntza-egoera honako hau da:

- Kulturana Navarra.es: Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren oinarritzko orria, elebiduna. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu ezberdinetatik webaren edukia eguneratzen ari dira, Euskarabidea itzulpenetarako lankide dela.

- Kultura: Navarra.es webguneko kanpoko 10 web orri diagnostikatu dira guztira, Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuek kudeatuak, eta horiek guztiak dira elebidun.

- Deporte Navarra.es: Nafarroako Kirolaren Institutuaren web orri nagusia. Web hori ele biz eskaintzen da; dena den, badaude aurkituriko eduki eguneratugabeak eta ez-elebidunak. Departamentuak klausula bat gehitu du web orri horren kudeaketaz arduratzen den enpresaren kontratazioaren lizitazioan, halatan elebitasuna eta bi hizkuntzen aldiberekotasuna bermatze aldera. Jardun hori Euskarabidearekin lankidetzan egin da.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaietara lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako

lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduratzen den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta formatu berriz jantziak izaten ari dira. Abian da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen arteko koordinazioa, ele bitan egiteko gaikako web horien hobekuntza (azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne).

Kultura eta Kirol Departamentuaren kasuan, honakoak dira gaikako web diagnostikatuak: Kultura eta Kirola. Horien hizkuntza-egoera honako hau da:

- Kultura: Web tematiko honen itzulpena eta eguneraketa egin da, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan.

- Kirola: Web tematiko honen itzulpena eta eguneraketa egin da, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusi da badaudela denboran egonkorak diren izapideak eta epe jakin batzuk dituzten izapideak.

Lehentasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezen, eta lanean hasi gara denboran egonkorak diren eta erabiltzaile gehien dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera-kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuaren, Euskarabidearen eta navarra.es Atariaren Atalaren lankidetzarekin ari gara.

Izapide egonkorren itzulpena egiteko protokolo bat taxutu da, eta izapide-editoreei prestakuntza ematen ari zaie, lan hori autonomiaz egin dezaten.

Kultura eta Kirol Departamentuaren kasuan, denboran egonkorak diren 19 izapide identifikatu dira guztira. Hasierako diagnostiko horretan, bi izapide elebidun aurkitu ditugu, eguneratuak.

Nafarroako Kirolaren Institutuaren kasuan, itzulpen-prozesuari ekin zaio urteko epe jakin batean irekitako izapide batekin. Une honetan jada bukatuta dago itzulpena, eta izapidea ele biz eskaintzen da. Erakunde honen izapide gehiago hautatu dira eguneratuak eta itzuliak izateko, eta datozen hilabeteetan jorratuko dira lan horiek.

Kultura Zuzendaritza Nagusiaren kasuan, 16 izapide diagnostikatu dira lau zerbitzu ezberdinetan, eta guztiak itzuli dira.

Gaur egun, Kultura eta Kirol Departamentuko izapideen % 89,47 ele bitan daude. Datozen hilabeteetan Departamentuko izapide guztien itzulpena egingen da, Euskarabidearen lankidetzaz.

5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio elebiduneko elementuak (bulegoak, arretaguneak ...): hizkuntza-paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea, jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea, jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da

Hizkuntza-paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioari buruzko txosten bat egin da. Euskarabideko langile teknikoen eta Departamentuko solaskideen artean adostu da hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa jasotze aldera erabili beharreko metodologia. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasunezko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobeixatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek Departamentuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, Departamentuko pertsonak egin dituzte. Txostena 2021-06-15ean aurkeztu zaio Departamentuari.

Aipatu txostena egiteko, honako egoitza hauek aztertu dira:

- Nafarroako Museoa
- Nafarroako Errege Arxibo Nagusia
- Nafarroako Liburutegia eta Filtoteka
- Eremu euskalduneko liburutegiak: Altsasu, Baztan, Irurtzun, Leitza, Etxarri Aranatz, Olazti, Lesaka eta Bera.
- Kulturako Erregistroa
- Nafarroa Arena, Kirol Institutua

• “Larrabide Estadioa” Kirol Teknikazioko Zentroa

• Fuerte del Príncipe gazteentzako egoitza zentroa

Txostenetik honako datu orokor hauek ateratzen dira: Departamentuaren 15 egoitza aztertu dira, eta horiek guztira ele biz daude; dena den, egoitza batzuek proposamenak jaso dituzte errotulazio-aldaketa egiteko, eta Departamentuak bere onespena eman du.

Proposamenak:

• Eremu euskalduneko liburutegiak: diagnostikaturiko egoitzetako errotulazioa homogeneizatzea.

• Nafarroako Kirolaren Institutua: karteleraren parte txiki bat aldatzea eta erregistroa eredu elebidunera pasatzea.

• Printzearen Gotorlekua Egoitza Zentroa: karteleria eta errotulazio-parte bat eredu elebidunera aldatzea. Halaber, euskarriei uniformetasuna ematea proposatzen da.

• “Larrabide Estadioa” Kirol Teknikazioko Zentroa: errotulazioaren zuzentasuna ebaluatzea proposatzen da.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta Departamentua horiek banatzen ari da hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitatetan ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzea

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostiko bat egiten ari da. Heldu den urtean garatuko da.

Bigarren galderaren erantzuna.

– Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liratekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Lehen helburuari buruzko aurreko erantzunean zehazten den bezala, postu-proposamenari buruzko txosten teknikoa egin eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio.

Momentuz, ezin da lanpostu-proposamenari buruzko datu zehatzik eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio kolektiboko prozedura gauzatu gabe baitago, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zarpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duena. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarriko 282 lanpostu dauzka, eta horietatik 10 dira elebidun; hau da, plantilla organikoaren % 3,55.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin zuen —5976 irteera-zenbakiarekin erregistratu zen 2021eko irailaren 6an (10-21/PES-00241)—, hizkuntza-planak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan izandako garapenari buruz. Jarraian kopia dugun galdera dela-eta, honako hau jakinarazten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Egindako galderei erantzunez, departamentuaren hizkuntza plana garatzeko egin behar izan diren ekintza eta lan batzuk zehaztuko ditugu, hasteko.

Plan horren ezarpena egin ahal izateko, 4. puntuan zehaztutako jarraibideei heldu diegu. Antolamenduaren eta jarraipenaren egitura.

Horretarako, departamentuak 2 teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren arduradun izanen den pertsona bat izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren

departamentuak izendatutako pertsonen eta Euskarabideak hautatutako artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago Plana implementatzeko.

Horretaz gainera, departamentuen arteko batzorde teknikoaren bilera bat programatuta dago azarorako.

Departamentuko hizkuntza planaren ezarpenan diharduten pertsonen prestakuntza jaso dute 2020ko azaroaren 4an eta 5ean.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-tea)

Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)

- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledu-naren Bulegoa

- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Lehenengo galderaren erantzuna:

– Zertan da Ekonomia eta Ogasun Departamentuko hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketako bakoitza betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketa-ildoak, unitate arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua: lehentasunezko unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena igortzea Funtzio Publikoari, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Egina
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Egina
Sindikatuekiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu behar zaien lanpostuak zehaztea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Egina
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Egina
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikoari igortzea	Departamentua	Egina

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak joan den legegintzaldian zehar ezarri eta onetsi zituen euskarazko hizkuntza-derrigortasuna duten lanpostuak. Zehazki, Departamentuko Hizkuntza Plana onetsi aurretik, guztira 5 postutarako hizkuntza-derrigortasuna ezarri zen (2019), une hartan zegoen prozedurari jarraikiz.

Departamentuko 2015-2019 Hizkuntza Plana onetsi ondoren, euskarazko hizkuntza-derrigortasuna guztira 7 postu gehiagotarako ezarri zen, NAO n uztailaren 3ko 78/2019 Foru Dekretua argitaratuz.

Gaur den egunean guztira 12 postu dira euskarazko hizkuntza-derrigortasuna duten lanpostuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan.

2. helburua. Departamentuak izanik lehentasunezko unitate organikoak esleitutakoak diren langileei euskara-prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat diseina dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-beharra aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikatuaren premien arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Euskarabidearekin batera, Departamentua euskara-ezagutzari buruzko diagnostiko bat ari da egiten lehentasunezko unitateetakoak diren postuak betetzen dituzten pertsonen artean, hizkuntza-beharrizanak identifikatzeko eta ikasketaplana egiteko.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, arreta euskaraz jasotzea eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei bi hizkuntzetan ematearren arreta	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta elebidunerako hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den zehaztea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabideak aholku-zerrenda bat prestatu du, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutarazteko protokolo bat egingen du.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazio elebiduna (digitala eta paper bidezkoa) eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Koordinazioaren, itzulpen beharraren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanen duten pertsonak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Etengabe garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioei buruzko lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezzen	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Hizkuntza planaren 2.4 puntuan, komunikazioen eta baliabideen diagnostiko bat egin zen, eta aurrerantzean osatuko da.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehentasuna eman zaie aurreproiektuei eta foru legeen eta foru dekretuen proiektuei. Horretarako badago Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehentasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak hala eskatzen duten departamentuei euskarria eskaintzen die elebidunak izateko egokiak diren formatuak dituzten webbetarako eta aplikazioetarako.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lankidetzan ari da navarra.es atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin, zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten navarra.es helbidean ostataturiko web orri propioen eta gaikako web orrien diagnostikoa egiteko, eta ele biz eskainiak izateko beharrezkoak diren urratsak egiteko. Horrez gain, Departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostataturiko web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eraginik handiena izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Lehenik eta behin, web orri propioak identifikatu dira. Jarraian, haien hizkuntza-egoeraren diagnostiko bat egin da.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kasuan, ez dago web propio identifikaturik.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiei lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorak baitira

eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduratzen den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta formatu berriz jantziak izaten ari dira. Abian da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen arteko koordinazioa, ele bitan egitekoa gaikako web horien hobekuntza (azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne).

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kasuan, Euskarabidearekin eta Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin batera lanean ari dira departamentuaren (Nafarroako Ogasunaren) web orri nagusiaren euskaratzean, zeina gaur egun gaztelaniaz baitago.

Bestalde, lankidetzan berezi bat egin da Euskarabidearekin, 2020ko Errenta Aitorpenerako kanpainaren webaren edizioan eta horren izapide-tzean, zeina osoki egin ahal izan baita ele biz.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusi da badaudela denboran iraunkorrak diren izapide batzuk, eta epe jakin batzuk dituzten beste batzuk.

Lehentasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezten, eta lanean hasi gara denboran egonkorak diren eta erabiltzaile gehiago dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera-kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Izapide egonkorren itzulpena egiteko protokolo bat taxutu da, eta izapide-editoreei prestakuntza ematen ari zaie, lan hori autonomiaz egin dezaten.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kasuan, berrikusi da zer egoeratan dauden departamentu horretan bisita-kopururik handiena duten izapideak (90 inguru, berrikuspen-datan eskuragarri zeuden 178etatik).

Euskarabideko teknikariekin lankidetzan, beste 28 izapide itzuli dira, jadanik itzulita zeuden 43ei gehitzen zaizkienak. Badaude oraindik beste batzuk ere, itzulpen- edo eguneratze-prozesuan. Horretarako, prestakuntza-saioak egin dira Depar-

tamentuko zerbitzu eta atal ezberdinetako izapideen (on-line direnen eta/edo presentzialak direnen) editoreekin. Ezin konta ahala kontaktu egon dira Euskarabideko teknikariek, telefono nahiz posta elektronikoko bidezkoak, lan horren inplementazioa egiteko.

Une honetan, lehen aipaturiko izapideen % 80 ele biz daude jadanik (guztien % 40), eta asmoa da langintza horri eustea datozen hilabeteetan.

3. Inprimaki eta formulario ofizialak (paperezkoak eta digitalak)

Nafarroako Ogasunarekin egiten diren zuzemen guztietarako erabiltzen diren inprimaki eta formulario eskuragarrien inbentario bat egin da. Inprimaki- eta formulario-sorgailua gaztelaniaz baizik ez dago, Ogasunaren web orriaren gainerakoa bezala. Alabaina, bertan eskura daitezkeen 161 inprimaki eta formularioetatik, 155 ele biz daude, eta beste 6 gaztelania hutsez (% 96).

Paperezko formulario eta inprimakiei dagokierenez, eredu batzuk ele biz daude, eta beste batzuk

gaztelania hutsez. Gaur den egunean, gaztelaniazko batzuk baizik ez dira inprimatzen, horietako gehienak desagertzeko bidean baitaude. Paperezkoak izaten segituko duten eredu bakarrak hauek dira: DRRR 600, 605, 620, 650, 651, 652, 660, 661, cat06 -08, eta 030 Cl. Horien bertsio digitala elebiduna da.

Errenta-aitorpena egiteko formularioak ele biz daude eskuragarri, eta aukera dago aitortpena euskaraz nahiz gaztelaniaz egiteko, "errenta-aitortpeneko proposamenaren hizkuntza" aplikazioaren bidez. 2020ko Errenta Aitorpenerako kanpainari buruzko informazio-gutunak titularrei bidali, aitortpena egiteko aukeratutako hizkuntzan bidali zitzazkien. Azken puntu horri buruz, eta Euskarabideak eginiko oharri jarraituz, kanpainaren weba editatu zen, hizkuntza hautatzeko aukera nabarmentzeko.

Eskuz eginiko ziurtagirietarako paperezko ereduak eta idazkiei erantzuteko beste batzuk gaztelania hutsean daude.

5. helburua. Herritarrak artatzen direneko espazio fisikoen errotulazioa eta informazio elebiduneko elementuak (bulegoak, arretaguneak □): hiz kuntza-paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea, jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea, jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea, jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea, proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Ez da beharrezkoa izan
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Egina
Lanpostu-identifikazioa taxutzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da

Hizkuntza-paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioari buruzko txosten bat egin da. Euskarabideko teknikarien eta Departamentuko solaskideen artean adostu da hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa jasotze aldera erabili beharreko metodologia. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasuneko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobeztatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek Departamen-

tuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, Departamentuko pertsonak egin dituzte.

Txostena Euskarabidean 2021eko ekainaren 17an eginiko bileran aurkeztu zaio Departamentuari.

Aipatu txostena egiteko, honako egoitza hauek aztertu dira:

- Departamentuaren egoitza nagusia
- Ogasunaren Ezkirotz kaleko bulegoa
- 2021eko errenta-kanpainaren Baluarteko aldi baterako bulegoa

- Doneztebeko ogasun-bulegoa
- NASTATen egoitza.

Txostenetik ateratako datu orokorrak honako hauek dira:

Oro har, aztertutako egoitza guztiak elebidunak ziren, NASTATen egoitza izan ezik, behin-behineko egoeran baitago, lokal berri batera noiz lekualdatuko zain. Horri begira, zenbait gomendio egin dira.

Txostenean gomendio txiki batzuk egiten dira, etorkizunean errotulazioa eguneratzen denerako.

NASTATen egoitza berrirako errotulazio-proiektu bat egitea erabaki da, Euskarabideari aurkeztuko zaiona, bere oniritzia eman dezan.

Bestalde, kontsulta egin zitzaion Euskarabideari, Ogasunak Tafallan eta Lizarran dituen bulego-etako errotulazio berriari buruzkoa, bulego horiek berritze-prozesuan baitzeuden, eta ele biz paratu zen errotulazioa.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta Departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitate-tan ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeo hizkuntza-irizpideak ezartzea

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostiko bat egiten ari da. Euskarabidea hizkuntza-irizpideak ezartzeko klausulen zerrenda bat prestatzen ari da.

Heldu den urtean garatuko da.

Bigarren galderaren erantzuna:

Jadanik egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liratekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da perfil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, 2016-2019 legegintzaldian, 12 posturi esleitu ziren euskararen jakitea: horietako bosti, hizkuntza-plana onetsi baino lehen; eta gainerako zazpiei, plan hori onetsi eta gero. Azken horiek uztailaren 3ko

78/2019 Foru Dekretuan argitaratu ziren, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen baita.

Gaur egun, departamentuak oinarritzko 437 postu dauzka, eta horietatik 12 dira elebidun; hots, % 2,75.

Bukatzeko, departamentu ezberdinetan plana implementatze aldera Euskarabideak eginiko lanak eta betetako funtzioak azalduko ditugu.

Euskarabideak departamentu bakoitzean ditu esleitura euskarako teknikariak, eginkizun hauek betetzeko: aholkularitza, laguntza eta akonpainamendua.

Pertsona horien bitartez honako funtzio hauek bete dira:

- Departamentuarekin eta Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin lankidetzan, gaikako web orrien diagnostikoa egitea.

- Departamentuarekin lankidetzan, web proiektuen diagnostikoa egitea.

- Departamentuarekin eta Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin lankidetzan, izapideen diagnostikoa egitea.

- Weben nahiz izapideen edukien fluxuak identifikatzea, jardute-protokoloak sortzeko, xedezat harturik testuak elebidun izatea, haien zuzenketaren, hobekuntzaren eta itzulpenaren bitartez.

- Jardute-irizpideak zehaztea.

- Bilera teknikoak egitea departamentu guztietan.

- Departamentuarekin batera egitea errotulazio-txostena eta hori departamentuei aurkeztea.

- Prestakuntza-saioak ematea.

- Pinak eta identifikatzaileak sortzea.

- Hizkuntza-plangintzarako topagune birtual bat taxutzea Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuarekin lankidetzan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Nazioarteko VI. Arkitektura Biltzarraren aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko VI. Arkitektura Biltzarraren aurrekontuari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak 10-21/PES-00257 galdera idatzia egin du. Hori dela eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Ez Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, ez Nasuvinsak ez dute ekarpenik egin aipatutako kongresua finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria, José María Aierdi Fernández de Barrena

